

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2019/2020 ikasturtea

**ENKARTERRIKO GAZTEEK DROGEN INGURUAN DITUZTEN
EZAGUTZAK ETA KONTSUMO OHITURAK**

Egilea: ARIADNA BAHÓN CORTAZAR

Zuzendaria: NAIARA OZAMIZ ETXEBARRIA

Leioan, 2020ko maiatzaren 26an

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Marko teorikoa	5
1.1. Enkarterri	5
1.2. Drogak	6
1.2.1. Droga depresoreak	8
1.2.2. Droga kitzikatzaileak	9
1.2.3. Droga haluzinogenoak	10
1.3. Drogen kontsumoa bultzatzen dituzten faktoreak	11
1.4. Adikzioa eta tolerantzia	11
1.5. Drogak Euskadin	12
1.6. Drogak Enkarterrin	13
1.7. Aurrekariak	13
2. Helburuak eta hipotesiak	14
2.1. Helburuak	14
2.2. Hipotesiak	15
3. Metodologia	16
4. Emaitzak	17
5. Eztabaida eta ondorioak	23
5.1. Eztabaida	23
5.2. Ondorioak	25
6. Etika eta datu pertsonalen babesa	27
7. Erreferentzia bibliografikoak	27

ENKARTERRIKO GAZTEEK DROGEN INGURUAN DITUZTEN EZAGUTZAK ETA KONTSUMO OHITURAK

Ariadna Bahón Cortazar

UPV/EHU

Droga kontsumoaren larritasunaren inguruko kontzientzia hedatzen ari den arren, arlo horretan Enkarterriko eskualdean, oraindik ere, aurrera pauso asko gelditzen dira. Izan ere, bertako biztanleriak daukan kontsumoa ezagutzeko eta horren aurrean esku-hartze bat egiteko ikerketa gutxi burutu dira. Lan honen helburua hutsune hori betetzea da, hau da, Bizkaiko Enkarterriko populazioaren substantzia psikoaktiboen kontsumoaren errealitatera heltzea. Horretarako, ikerketa kuantitatiboa egin da eta erabili den tresna galdetegia izan da. Lortutako emaitzek droga legalen kontsumoa legez kanpokoa baino altuagoa dela agerian utzi dute. Gainera, gizonen droga kontsumoa emakumezkoena baino altuagoa dela eta esku-hartze sozio-hezitzailea beharrezko dela ondorioztatu da.

*Drogak, Enkarterri, Ikerketa kuantitatiboa, Substantzia psikoaktiboak,
Kontsumoa*

Pese a que la concienciación entorno al uso de drogas cada vez es más extensa, en el territorio de las Encartaciones todavía queda mucho en lo que avanzar. Pocas han sido las investigaciones que se han llevado a cabo para conocer el consumo de la población encartada y, en consecuencia, realizar una intervención que de respuesta a sus necesidades. Por lo tanto, el objetivo principal de este trabajo es llenar ese vacío conociendo la realidad del consumo de sustancias psicoactivas en la población de las Encartaciones. Para ello, se ha realizado una investigación cuantitativa y una encuesta. Los resultados obtenidos dejan claro que el consumo de drogas legales es mucho mayor que es la de las ilegales. Además, se ha concluido que en general los hombres tienen un consumo mayor que las mujeres y que es necesaria una intervención socioeducativa.

*Drogas, Encartaciones, Investigación cuantitativa, Sustancias psicoactivas,
Consumo*

Although the awareness about the use of drugs is increasing, there is still a lot to do in Encartaciones. The research to know the consumption of the population has been scarce and, consequently, there are few interventions done to reply the necessity of the residents. Therefore, the aim of this work is to fill the scarcity of knowledge about the consumption of psychoactive substances in the Encartaciones territory. In order to achieve this goal, a quantitative research and a survey have been done. The results reveal that the use of legal drugs is bigger than the illegal consumption. Moreover, it has been concluded that men have bigger drug consumption compared to women. Taking all these facts into account, a social-educative intervention is completely necessary.

*Drugs, Encartaciones, Quantitative research, Psychoactive substances,
Consumption*

SARRERA

Etorkizunean gizarte hezitzaileak izango garenez, jendartean dauden hainbat arazoren aurrean erantzukizuna izan beharko dugu. Gizarte Hezkuntzako Estatuko Elkarreak eta Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren Kontseilu Nagusiak (2007) Gizarte Hezitzaileen Kode Deontologikoan aipatzen dutenez, gizarte hezitzaileek garatuko dituzten ekintza sozio-hezitzaileen bidez, lan egiten den pertsonen, taldeen edota komunitateen bizi kalitatea hobetuko da (25.orr.). Hori kontuan izanda, gaur egungo gizartearen bizi kalitatea kaltetzen duten arazoaren artean drogekin lotutako egoera aurkitzen dugu.

Aurreko paragrafoan aipatutako egoera ez da berria, adikzioak eta substantzien kontsumoa antzinatek gaur egunera arte izan baitira. Hala ere, nahiz eta drogen erabilera berria ez izan, gaur egun droga kontsumoak dakartzan arazoei garrantzi handiagoa ematen zaie. Nolanahi ere, gizarte hezkuntzaren ikuspegitik, oraindik jendartean gai honen inguruan beharrezkoa den kontzientzia garatzeko bide luzea gelditzen da.

Hurrengo orrialdeetan azaltzen den GRAL-aren bidez, Enkarterriko udalerrietan dagoen droga kontsumoen errealitatea ezagutu ahal izango da. Enkarterri aukeratzearen arrazoia da, Balmasedakoa naizenez, hurbilen gelditzen zaidan eremua dela, alegia, hoberen ezagutzen dudana. Horrez gain, lurraldeko droga-mendekotasun teknikariarekin batzartu nintzenean, biok ados geunden droga-mendekotasunen eta kontsumo maiztasunaren inguruan Enkarterriko Mankomunitatean orain arte egindako ikerketak eskasak direla. Hori dela eta, esan zidanarekin bat egin eta GRAL-aren oinarria gabezia hura izango zela erabaki nuen. Gizarte hezitzaile gisa, esku-hartze bat bideratzerakoan lan egingo den testuinguruaren datuak izatea ezinbestekoa da. Horrela ez izatekotan, aurretiko ikerketarik edo egoera deskribatzen duen daturik gabe, biztanleriaren beharretan zentratzea eta behar horiek asetzeko ezinbestekoak diren errekurtsoak eta ekintzak burutzea oso zaila da. Horregatik, iluntasuna pixka bat argitzearen eta gizarte hezitzaileei lana errazteko, ikerketa etorkizunari begira aurrekaria izatea espero dut.

Arlo pertsonalari begira, benetan kezkatzen eta, aldi berean, interesatzen nauen gaia da. Gainera, orain dela urte asko hasi nintzela Enkarterriko zenbait tabernatan lan egiten eta jaietan zein asteburuetan ikusitako drogen presentziak harritu ninduen. Hasiera batean, hainbeste jendeak kontsumitzen zuela konturatzekoan ikaratu nintzen, baina denborak aurrera egin ahala, eta hausnarketa sakona egin eta gero, benetan izutu ninduen jendea kontsumoarekin hain gazte hastea izan zen.

Behin gaia aukeratzearen arrazoiak azalduta, lana garatzen hasteko, alderdi teorikoak aztertuko dira. Puntu honetan, aztergai izango den lurraldearen, drogen, adikzioaren eta tolerantziaren, hala Enkarterrin nola Euskadin drogen presentziaren eta aurrekari gisa erabiliko den ikerketaren informazioa aurkeztuko da. Ostean, ikerketa honen helburuak eta ikerketa baino lehen ditudan usteetatik eta literaturatik eratorritako hipotesiak azalduko dira. Atal horren ondoren, lan hau burutzeko erabiliko dudako metodologia azalduko dut. Ondoren, emaitzen analisisian, ikerketan lortutako erantzunak aztertuko dira. Amaitzeko, lortutako emaitzak bibliografiarekin egiaztatuko dira eta planteatutako hipotesiak, emaitzekin alderatuz, baieztatu edo deuseztatuko dira.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. ENKARTERRI

Testuinguruaren azalpenarekin hasteko eta Enkarterriko web orriarekin bat eginez, Enkarterri non kokatzen den azalduko da. Enkarterri Bizkaiko mendebaldean dagoen 429,5 km²-ko lurraldea da eta bederatzi udalerriz osatuta dago; Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz, Artzentales eta Zalla. Kokapena dela eta, herri batzuk Burgosekin, Arabarekin edota Kantabriarekin muga egiten dute. Pérez Garmendiak (2019) dioenez, Enkarterriko Mankomunitatearen presidentek, mankomunitatea osatzen dituzten udalerririk horiek guztiek helburu amankomunak lortzeko eta garapena, elkartasuna eta gardentasuna sustatzeko errekurtsioak eta esfortzuak bateratzen dituzte.

Euskal Estatistika Erakundearen (2018) arabera, Enkarterrietan 31.806 biztanle bizi dira. Horietatik, 15.733 gizonezkoak dira eta beste 16.073 emakumeak dira. Biztanle kopuru osotik, 12.980 pertsona Espainiatik eratorritako etorkinak dira eta 5.519 beste herrialde batzuetatik etorritako etorkinak dira. Migrazio eta sexu alderdiak aintzat hartuta, emakume etorkinek gehiengoa dute, 9.563 emakume 8.936 gizonen aurrean.

Bukatzeko, adinari erreparatuz, EUSTAT-en datuen arabera, 2018. urtean 0-19 urte bitartea 5.666 biztanlek osatzen zuten. Urte berean, Enkarterrin 20-64 urte tartearen barnean 19.262 pertsona zeuden eta 65 urte edo gehiagoko gizon eta emakume kopurua 6.878koa zen. Ondorioz, biztanleriaren gehiengoa, %61 hain zuzen ere, 19-64 urte aratean barnean dago.

1.2. DROGAK

Droga, ikerketa honen oinarria denez, zenbait autorek emandako definizioak azpimarratzea garrantzitsua da. Artiagak (1991) drogak honela definitzen ditu: gizonak mendeetan zehar erabili, erabiltzen edo sortuko duen edozein substantzia da, organismo bizi baten jarrera, jokaera, zentzu, pertzepzio eta adimen funtzioak eraldatzeko gai dena. Bestalde, beste bi definizio hauek ere aintzat hartzeko modukoak dira:

Medikuntzan, gaixotasun bat saihesteko edo sendatzeko edo osasun fisikoa edo mentala hobetzeko gai den sustantzia oro da eta farmakologian, organismoen edo ehunen prozesu fisiologikoak eta biokimikoak aldatzeko substantzia da. Hori dela eta, droga Farmacopea barnean dagoen edo egon daitekeen sustantzia da. Hizkuntza arruntean, termino honek substantzia psikoaktiboei eta, askotan, modu konkretuago batean, droga ilegalei egiten dio erreferentzia (Munduko Osasun Erakundea, 1994, 33.orr.).

Droga, edozein bidetik organismoan sartuta, banakoen nerbio sistema zentralaren funtzionamendu arruntean aldaketak eragiten dituen sustantzia oro da eta, gainera, dependentsia fisikoa, psikologikoa edo bata zein bestea sor dezake (MOE, d.g., Verdúk aipatuta, 2007).

Ikuspegi globaletik begiraturaz, United Nations Office on Drugs and Crime-n (2018) txostenean ageri da 2016. urtean mundu osoan 275 milioi pertsonak bizitzan behin gutxienez drogak kontsumitu zituztela. Munduan gehien kontsumitutako

sustantzia ilegala kalamua da, jarraian kokaina aurkitzen da, ondoren estasi eta anfetaminak eta azkenik heroina (Espainiako Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa, 2011). MOE-en datuen arabera, drogen kontsumoa zela eta, 2015.urtean 450.000 pertsona hil ziren, heriotza horien artean, askok drogak hartzeak eragindako nahasteekin harremana zuten.

Aguilar, Cacharrón, Castillo, Garrido, Parreño eta Saldañaren (2011) esanetan, 14-18 urte bitarteko gazteen %80ek noizean behin alkohola kontsumitu zuten, %46k tabakoa eta %36k kalamua. Kontsumo horiek gero eta lehenago hasteaz gain, 13-14 urte artean hain zuzen ere, gero eta ugariagoak dira. Beraz, ikerketa horretan lortutako emaitzak Borrego, Cuenca, Lopezosa, Muñoz eta Torresek (2019) adierazitakoarekin bat datoz, hau da, Espainian gehien kontsumitutako drogak alkohola eta tabakoa direla. Kontsumo ohitura horiek bizitza osoan zehar garatu eta hedatu egiten dira eta osasun publikoan oztopo eta ondorio garrantzitsuak dakartzate (Barca, Calatayud, Figuero, Repetto eta Serrano, 2001). Gainera, alkoholaren eta tabakoaren kontsumoan prebentzioa egin ezean, politoxikomania pairatzeko arriskua areagotu egiten da (Aguilar, Cacharrón, Castillo, Garrido, Parreño eta Saldaña, 2011). Era berean, Maturana (2011) doktorearen iritziz, drogen kontsumoa beste arrisku jarrera batzuekin erlazionatzen da, adibidez, indarkeriarekin, planifikatu gabeko erlazio sexuarekin eta eskola-desertzioarekin.

Gaur egun existitzen diren drogen zerrenda biziki luzea da eta, horregatik, ulertzeko errazagoa izateko, hainbat eratan sailka daitezke. Morenok (2002) azaldutako sailkapena aburuz, nerbio sistema zentralean eragiten dituzten efektuei begira hiru droga mota mailakatzen dira:

- Depresoreak: nerbio sistema zentralaren funtzionamendua moteltzen dute, adibidez, alkohola, lasaigarriak, heroina eta GHB.
- Kitzikatzaileak: garunaren funtzionamendua bizkortzen dute, besteak beste, nikotina, kokaina, anfetaminak eta kafeina.
- Haluzinogenoak: pertzepzioa eraldatzen dute, marihuana, LSD, MDMA eta ketamina

1.2.1. Droga depresoreak

- Alkohola

Gizartean gehien onartutako substantzia da eta, horren eraginez, bai gazteen artean bai jendartean gehien kontsumitzen dena (Gómez, Moreno eta Rodríguez, 2019). Orokorrean, alkohol kontsumoa noizbehinkakoa, etxetik kanpoko eta parekoen artekoa da. Ailaket-ek (2019) ematen dituen datuen artean nabarmentzekoa da alkoholak beste droga ilegalak elkarrekin baino 50 aldiz heriotza gehiago eragiten dituela. Ildo beretik, Barca, Calatayud, Figuero, Repetto eta Serranoren (2001) testua oin hartuta, substantzia depresore honek kotxe istripuengatik emandako gazteen heriotzen erdiarekin baino gehiagorekin zerikusia izan du. Gauzak horrela, Gómez, Moreno eta Rodríguez (2019) aburuz, alkoholaren gehiegizko kontsumoa munduko osasunarentzat hirugarren postuan aurkitzen den oinarrizko arriskua da.

- Heroina

Zaragozako Adikzioen Prebentzioko eta Atentzioko Udal Zentroaren (2009) esanetan, heroina jatorri naturaleko lasaigarri indartsuena da eta 60ko hamarkadan mendebaldeko gizarteetan bere kontsumoak izugarritzko gorakada izan zuen. Normalean, purutasun maila baxua duen hauts forman saltzen da, beste hainbat substantziekin nahastuta egoten baita. Ailaket-eko (2019) informazioari erreparatuz, kafeinarekin eta parasetamolarekin nahastu ohi da, laginaren batz besteko purutasuna %11 izanik. Heroina hartzeko hainbat modu daude, adibidez, esnifatuz, erreta, zainen bidez zein malko guruinetik. Sei orduren buruan droga kantitate gehiena desagertzen da eta, 48 ordu eta gero, ez da heroinaren arrastorik geldituko.

- Disolbatzaile lurrunkorrak

Droga-mendekotasunen kontrako Laguntza Fundazioko (2020) web orrian agertzen diren disolbatzaile lurrunkorren artean hauek daude: kola, lakak, gasolina, margoak, etxeko lurrinak eta disolbatzaileak. Azetatoa, bentzenoa, kloroformoa, karbono tetrakloruroa, nafta eta ziklohexanoa bezalako konpasatu kimikoak dituen edozein produktu arnas bidez hartzen den abusu substantzia bihur daiteke. Toxikotasun handiko substantziak izan ohi direnez, ondorio fisikoak zein psikikoak larriak izan daitezke. Kontsumo erari dagokionez, arrutena

produktua plastikozko poltsa batean isurtzea eta barruan dagoen lurruna arnastea da. Trapu edo oihal bat hartu nahi den produktuaz bustiz gero ere kontsumi daiteke.

1.2.2. Droga kitzikatzaileak

- Tabakoa

Ailaket-en (2019) arabera substantzia estimulatzaile honek, kantitate handietan hartuz gero, propietate haluzinogenoak izan ditzake. Tabakalerek kontsumitzeko produzitzen dituzten zigarroek 200 gehigarri dituzte eta horrek tabakoa kaltegarri bihurtzen du. Nikotinak adikzio gaitasun ikaragarria dauka eta zupada bat eman eta 20 segundora odoletara iragaten da. Gainera, denbora gutxian tolerantzia altua sor dezake. Erretzeak gaixotasun kardiobaskularren, enfisemen eta birika minbiziaren garapenean eragina dauka (Barca, Calatayud, Figuro, Repetto eta Serrano, 2001).

- Kokaina

Kokaina hostoak prozesatzean lortzen den hautsak %85eko purutasuna dauka, baina, kaleetan komertzializatzen den kokaina hautsak normalean %30eko purutasuna dauka, azukrea, anestesiko eta beste substantzia batzuekin nahasia baitago (Zaragozako CMAPA, 2009). Mendeetan zehar, gosea baretzeko nahiz arrazoi erlijiosoengatik, kokaina landarearen hostoak murtxikatu dira. Gaur egun, aldiz, euforia, ongizatea, hiperaktibitatea eta gizarteratze handiagoa izateko hartzen da. Hala ere, antsietatea, haluzinazioak, urduritasuna, konbultsioak, jarrera agresiboak eta arazo psikiatrikoa eragiteko probabilitatea dago.

- Anfetaminak

Kirolean dopatzaile gisa eta medikuntzan zenbait nahaste tratatzeko erabiltzen den substantzia kitzikatzaile sintetikoa da (Zaragozako CMAPA, 2009). Kaleratzen diren anfetaminak ezkutuko laborategietan sintetizatzen dira eta ohikoena "speed" deiturikoa da. Kontsumoa aho bidezkoa, esnifatur edo injektatuz izaten da. Sortarazi dezaketen ondorioen artean euforia, logura galera, arnasketa erritmoa bizkortzea, presio arterialaren igoera, paranoia, haluzinazioak eta abar luze bat daude. 2007/08 urteetan 15-64 urte bitarteko

espainolen %3,8k frogatu zituzten anfetaminak eta haren kontsumoa gizonen artean emakumeen artean baino hedatuago dago (Zaragozako CMAPA, 2009).

1.2.3. Droga haluzinogenoak

- Marihuana

Marihuana landarea daukan gaitasun psikoaktiboengatik orain dela milaka urte landatzen hasi zen eta, askotan, musikarekin eta artearekin erlazionatu izan da, irudimena zabaltzen zuelako. Kontsumoa eta gero euforia, ongizatea, komunikazio erraza, alaitasuna, aho lehortasuna, tenperaturaren jaitsiera eta indar falta ematen da. Dauden datuei begira, UNODC-en (2018) aburuz, munduan gehien kontsumitzen den droga ilegala da, hain zuzen ere, 2016. urtean 192 milioi pertsonak kontsumitu zuten. Gainera, heroinarekin, kokainarekin eta sintesiko beste drogekin ez bezala, kalamuarekiko tolerantzia dela eta, droga honekiko dagoen arrisku pertzepzioa oso baxua da (Molina Muñoz, 2007).

- LSD (Lysergic acid diethylamideren)

LSD era likidoan edo pilula forman aurkitu daiteke. Eta tripiek 50-200 mg LSD eramaten dituzte (Ailaket, 2019). Oso substantzia berezia delako, dosi berdinak era ezberdinetan eragin dakiokete pertsona bakoitzari. Ez dago dependentzia fisikoa sortzen duen ebidentziarik, ez baitu abstinentziarik gauzatzen. Dena den, bere kontsumoa dela eta ematen den dependentzia psikologikoa oso arriskutsua da (Ailaket, 2019). LSD-aren arazo nagusia bere efektuen pronostiko falta da, oso efektu atseginak izan ditzake baina guztiz kontrakoak ere, esaterako, suizidioak eta dementziak. Zaragozako CMAPA-ren (2009) ustez, atarramentuak kontsumitu eta 30-40 minututara azaleratzen dira eta 8-10 ordu iraun dezakete.

- MDMA (3,4-metilendioximetanfetamina)

Pilula zein hauts forman saltzen da eta esnifatzean eragina bizkorragoa bada ere, iraupena txikiagoa da. Ailaket-en (2019) arabera, haren eraginak generoaren, adinaren eta pisuaren arabera izaten dira. MDMA dosien ondorioek 4-6 ordu iraun dezakete eta efektu ohikoenak sentsazio emozionalen handipena, autoestimu altuagoa, euforia, poztasuna eta entzumen eta ukimen sentsibilitatea handiagoa dira. Gehituriko dosiek ez dituzte ondorioak sendotzen

eta beste substantziekin alderatuz, MDMA-aren eraginez emandako heriotza kasuak nahiko murrizak dira (Ailaket, 2019).

1.3. DROGEN KONTSUMOA BULTZATZEN DUTEN FAKTOREAK

Sustantzien kontsumoaren arrazoiez hitz egitean, hainbat faktoreri erreparatu behar zaie. Batzuetan, kontsumoa erabakiak hartzeko gaitasun faltarekin erlazionatzen da, besteetan, ostera, talde sozialaren presioarekin eta banakoen gabezia afektiboekin. Hala ere, lan honetan Maturanak (2011) bere lanean kontuan hartutakoak adieraziko dira:

- Faktore makrosozialak: baliagarritasunari eta eskuragarritasunari egiten die erreferentzia. Droga batzuk instituzionalki legalak izateak modu errazean eskuratzea dakar, adibidez, alkohola eta tabakoa.
- Faktore mikrosozialak: hala nola, hezkuntza modu desegokiak, familia barruan komunikazio falta eta klima arazotsua, familian alkohol kontsumoa edo lagun taldearen eraginak.
- Faktore indibidualak: esaterako, drogen inguruan informazio falta eta aurreiritziak, alkoholaren eta drogen aldeko jarrera positiboa izatea eta banakoaren gabeziak eta arazoak (adibidez, autoestimu baxua eta kanpoko kontrol locusa).

1.4. ADIKZIOA ETA TOLERANTZIA

Alde batetik, Díaz, Fernández eta Prietok (2008) adierazi dute adikzioa drogak hartze errepikakorragatik ematen den sintoma eta seinaleen multzoa dela. Adikzioan ezaugarri hauek nabarmentzen dira:

- Konpultsioa, hau da, droga kontsumitzeko beharra edo desira (craving-a).
- Tolerantzia edo dosia handitzeko joera.
- Dependentsia fisikoa zein psikikoa.
- Narriadura ondorioak subjektuentzat, gizartearentzat edo bientzat.

Morenok (2002) baieztatzen du adikzio edo menpekotasun hainbat gradu daudela, hau da, kontsumitzeko bulkada banakoa aurkitzen den egoeraren araberakoa izango dela. Beraz, adikzio edo menpekotasuna izateko, ez da beharrezkoa momentu orotan kontsumitzeko desira handia izatea.

Beste alde batetik, tolerantzia substantzia kontsumoa ugaria denean izaten den ondorioa da. Horren ondorioz, subjektua droga kantitate zehatzarekiko ohitzen da, eta hasierako efektu berdinak lortzeko, dosiak progresiboki handitu behar ditu (Díaz, Fernández eta Prieto, 2008). Tolerantziak zenbait arrisku eragin ditzake, izan ere, normaltzat har daiteke droga kantitate handien kontsumoa eta dosiak handitzearen eraginez gaindosiak gerta daitezke (Moreno, 2002).

1.5. DROGAK EUSKADIN

Enkarterrin drogen inguruan egindako azterlanak eskasak direnez, Euskadin dagoen egoera deskribatuko da. Alkohol kontsumoari begira, Eusko Jaurlaritzak 2017. urtean egindako ikerketen arabera, partaideen %93,2k noizbait alkohola probatu dutela aitortzen dute, %81,2k azken urtean egin dute eta %71,5ek azken hilabetean (1. Eranskina). Hala ere, alkohol kontsumoa ez da homogenea, hau da, sexu, adin eta ikasketa-maila aldagaiei erreparatuz gero, zenbait ezberdintasun daude. Dena den, analizatzen diren kategoria guztietan, pisu handien daukan faktorea generoa da, gizonak izanda alkohol gehien kontsumitzen dutenak.

Marihuanaren kasuan, aurretik esan bezala, Euskadin ere gehien kontsumitzen den substantzia ilegala da. Izan ere, populazioaren %39k noizbait marihuana kontsumitu izan dute. Generoari dagokionez, egunero kontsumitzen dutenen artean (%2) desberdintasun nahiko esanguratsua ikusten da, gizonen kopurua emakumeen boskoitza baita. Bestalde, adina aztertzean, 25 urte baino gutxiagoko populazioa gehien kontsumitzen duena da (2.Eranskina).

Bestalde, 2017. urtean 15-74 urte tartean aurkitzen zen biztanleriaren erdiak baino gehiago noizbait tabakoa probatu izana adierazi zuen (3. Eranskina). Beraz, alkohola eta gero, tabakoa euskal herritarrek gehien hartzen duten substantzia psikoaktiboa da. Halaber, beste hainbat ikerketen aburuz, emakumeek jarrera osasuntsuagoak dituzte, eta hori, tabakoaren adibidearekin ere ondo ikus daiteke.

lido beretik, 4. eranskinetako taulan agertzen diren beste substantzia ilegalen inguruko datuek generoaren arabera aldea nabaria dela adierazi dute, hots,

emakumeen artean substantzia ilegalen kontsumoa baxuagoa dela. Gainera, heroinaren kasuan izan ezik, taula berean hautematen da, nola gero eta nagusiago izan, kontsumoa orduan eta txikiagoa den.

1.6. DROGAK ENKARTERRIN

Enkarterrin droga kontsumoaren inguruan datu gutxi dauden arren, 80. hamarkadatik hona, Enkarterriko Mankomunitateak droga-mendekotasun arloan hainbat ekimen martxan jarri ditu. Hori dela eta, identifikatutako beharrei erantzuna emateko eta prebentzioa egiteko, azken urteetan, Adikzioen Udal Plana 2016-2020 martxan jarri da. Era berean, planean egungo egoeraren inguruan zenbait pertzepzio biltzen dira.

Alde batetik, adikzioei bideratutako zerbitzu eta programen inguruan ezezagutza dela nagusi nabarmentzen da. Horrez gain, marihuanaren kontsumo normalizatua eta hedatua larritzekoa dela eta gazteen eta helduen artean alkohol kontsumoari bideratutako aisialdia garatu dela adierazten da. Azken honekin lotu daiteke aisialdi eta denbora libreari begira, errekurtsio eta tresna gutxi daudela.

Beste alde batetik, 2016-2020 Adikzioen Udal Planean profesionalak emandako datuak ere azaltzen dira. Atal horretan, 15-20 urte bitarteko gazteen artean substantzien kontsumoa areagotu dela azaltzen da eta, gainera, gazteekin duten esperientzian oinarrituz, gazteek drogak hartzea gustuko dutela eta arrisku pertzepzio baxua daukatela aitortzen dute. Dena den, droga kontsumoarekin erlazionatutako alarma soziala sortzen ari bada ere, eskualdeko profesionalak azpimarratzen dute droga esparruan pasibotasuna nagusi dela.

1.7. AURREKARIAK

Substantzia psikoaktiboen kontsumoak jendartea kezkatzen duen gaia den neurrian, hainbat eta hainbat ikerketa egin dira biztanleriaren kontsumo ohiturak ezagutzeko, adibidez, Asturiasen, Huelvan, Valladoliden, Jaenen, Calin, Mexikon, Bogotan eta Ontarion. Alabaina, ikerketan bilduko diren ezaugarriak eta helburuak aztertuz gero, Andaluziako Juntak 1987. urtetik egiten duen ikerketa azaltzea komenigarria litzateke, bertan aztertzen diren zenbait galdegaietan oinarrituko bainaiz.

Andaluziako Juntak burutzen dituen ikerketa hauen helburu nagusia Andaluziako biztanleen artean ematen den substantzia psikoaktiboen kontsumoa ezagutzea da. Kontsumoaren garapena behatzeko eta datuak berritzeko, ikerketa bi urtean behin egiten da. Inkestari begira, gizartean emandako aldaketei egokitzeko urtero eraldatzen da eta atal ezberdinetan zatitzen da, tabakoaren kontsumoa, alkoholaren kontsumoa, beste substantzien kontsumoa eta arrisku jokaerak, besteak beste.

Era berean, parte hartzaileak 12-64 urte bitarteko Andaluziako biztanleak dira. Dena den, inkestak erakundeetan daudenak, pentsioetan edota hoteletan bizi direnak eta etxegabeak alde batera uzten ditu. XIV. edizioan, 2017an azaroaren 13 eta 30 egunen artean egina, 3.630 pertsonak parte hartu zuten, horietako %50,4 gizonezkoak eta %49,6 emakumezkoak.

Amaitzeko, 2017. urtean burututako ikerketatik lortutako emaitzei begira, tabakoaren kontsumoa jaitsi egin da eta tabako gehien kontsumitzen duena 25-34 urte tarteko jendea da. Ez hori bakarrik, alkoholaren eguneroko kontsumoa areagotu egin da eta %54,6k azken hilabetean alkohola kontsumitu duela aitortu dute. Orobat, kalamuaren kontsumoa hedatu egin da eta lehenengo kontsumoaren batz besteko adina 18,4 da. Tabako, kokaina, MDMA, anfetamina, alkohol eta kalamu kontsumo handiena gizonezkoek daukate eta kalamua, kokaina, anfetamina eta MDMA kontsumoa 21-24 urte bitartean hedatuagoa dago. Era berean, kokainaren kontsumoa eta haren lehenengo kontsumoaren batz besteko adina handitu dira. Halaber, partaideen %3,4k drogen eraginei buruzko informazioa ez daukatela diote eta %31,2k zertxobait badakitela uste dute.

2. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

2.1. HELBURUAK

Sarreran aipatu bezala, ikerketaren helburu nagusia Enkarterriko eremuan dagoen substantzien kontsumoa eta ezagutza islatzea da, hau da, lurralde

espezifiko honetan droga kontsumoaren errealitatearen analisia egitea. Mankomunitatearen droga-mendekotasun teknikariarekin bildu eta bere lanaren eta aurrera eramaten dituen proiektuen inguruan hitz egin eta gero, drogen inguruan eskualdean dauden ikerketetan hutsunea egon badagoela hausnartu genuen. Izan ere, teknikariaren esanetan, gauzatzen diren prebentzioak eta azterketak adingabeei bideratuta daude, ikasketa garaian dauden biztanleriari, hain zuzen ere. Hori Enkarterriko Mankomunitateak, Etorikintzarekin batera, 2019. urtean pasatutako inkestan (5. Eranskina) argi gelditzen da. Ildo beretik, batzartu nintzen mankomunitateko profesionala eta biok ados gaude, gizarte hezitzaile garenez gero, ezjakintasunari aurre egin behar diogula eta errealitatearen analisi bat egitea behar beharrezkoa dela esku-hartze egokia eta eraginkorra gauzatzeko, baita lan egiten den eremuaren biztanle guztien beharrei erantzuteko ere. Egia da eskoletan eta ikastetxeetan prebentzio ekintzak eta ikerketak egitea beharrezkoa dela, baina, hortik kanpo gelditzen direnen arazoei eta beharrei ere erreparatu behar zaie. Hortaz, beste helburu bat 18-63 urte inguruko biztanleen kontsumoei buruz gaur egun arte dagoen ezjakintasuna gainditzea da, ikerketa hau egitearen arrazoiarekin zuzenki erlazionatuta dagoena.

2.2. HIPOTESIAK

Ikerketa honen inguruan planteatutako hipotesiak honako hauek dira:

- a) Emakumeek duten droga kontsumoa gizonezkoek dutena baino murrizagoa da.
- b) Kontsumitzaileek, hartzen dituzten substantzien menpe ez daudela uste dute, hots, nahi dutenean kontsumoa eten dezaketela uste dute.
- c) Droga legalen kontsumoa, hots, alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa, droga ilegalena baino askoz altuagoa da.
- d) Droga ilegalei eta alkoholari begira, kontsumo soziala da nagusiena, alegia, lagunen artean edota testuinguru sozialean (adibidez, parrandan eta asteburuetan) egiten dena.
- e) Enkarterriko gazteen artean heroina eta disolbatzaile lurrunkorren kontsumoa nahiko baxua edo izaterik gabekoa da.
- f) Gero eta jende gazte gehiagok kontsumitzen du.
- g) Gazte askok drogak hartzea ondo pasatzearen sinonimotzat daukate.

- h) Gazte askok ondorioetan pentsatu gabe kontsumitzen dute.
- i) Enkarterrin adikzioei bideratutako esku-hartze sozio-hezitzailea behar da.

3. METODOLOGIA

Puntu honi hasiera emateko, inkesta Enkarterriko Mankomunitatea osatzen duten herrietara zabaldu da. Udalerrietako biztanleei dagokienez, genero guztiak barne hartu dira eta, laginaren adinari erreparatuz, 18-63 urte bitarteko herritarren kontsumo jarrerak aztertu dira.


Ikerketa kuantitatiboa izan denez, aurretik planteatutako hipotesi batzuk frogatzera bideratuta egon da. Horrela, neurketa kontrolpean mantendu da eta erabili den tresna aldeztu aurretik osatutako inkesta objektiboa izan da (6. Eranskina). Inkesta sortzeko Enkarterriko Mankomunitateak, Etorikintzaren laguntzarekin, 2019.urtean zabaldutako inkesta eta Andaluziako Batzarrak 2017.urtean “La población andaluza ante las drogas” txostena egiteko erabili zuen galdetegia erabili ditut. Bi itaunketa horietatik testuinguruari, helburuei eta hipotesiei gehien hurbiltzen diren galderak hartu ditut. Ez hori bakarrik, itaun batzuk oinarri hartuta, nik neuk sortutako galdera batzuk ere badaude. Gauzak horrela, 22 galderez osatutako galdetegia zabaldu da, sei atal ezberdin dituena: datu pertsonalak, tabako kontsumoa, alkohol kontsumoa, marihuana edo kalamu kontsumoa, beste substantzia psikoaktiboen kontsumoa eta kontsumo jarrerak. Inkesta galdera irekiek zein itxiek osatzen dute.

Tresna zabaltzeko Google Forms-ez baliatu naiz. Google Forms-ek, pribatutasuna errespetatuz, Internet-en bidez galdetegiak hedatzeko aukera ematen du. Honela, esteka WhatsApp bidez nire kontaktuen artean pasa dut, beraiek ere laginaren barruan sartzen diren beste kontaktuei pasa ziezaieten.

Behin inkesten erantzunak jasota, emaitzak analizatu izan dira. Hori egiteko estatistikaz baliatu naiz, alegia, grafiko zein taula bidez analisi deskribatzaileak azaldu dira. Hori horrela, galderaz galdera lortutako erantzunak aztertu dira, geroago hipotesiak frogatzeko.


4. EMAITZAK

Emaitzen azterketarekin hasteko, 1. grafikoan ageri den moduan, inkestan 479 pertsonak parte hartu dute. %53,65 Balmasedakoak dira eta %26,1 Zallakoak, udalerri horiek baitira biztanle kopuru handiena dutenak.




1. Grafikoa. Enkarterriko parte hartzaileen sailkapena udalerriaren arabera

Genero ikuspegiari begira, 2. grafikoan islatzen den legez, emakumeen parte hartzea gizonena baino altuagoa izan da. 479 parte hartzaileetatik %61,5ak euren burua emakume bezala definitzen dute.



2.Grafikoa. Enkarterriko parte hartzaileen sailkapena sexuaren arabera

Era berean, partaideen adina sailkatzeko lau adin-tarte bereiziko dira; 15-24, 25-34, 35-54 eta 55-74, hain zuzen ere. 35-54 adin tartearen barruan sartzen diren biztanleak nagusi izan dira, partaideen %36 bertan kokatzen baitira (3. grafikoa).



3.Grafikoa. Enkarterriko parte hartzaileen sailkapena adina kontuan hartuta

Tabakoaren kontsumoari dagokionez (1. taula), tabakoa erretzen ez dutenak gehiengoa dira (%51). Generoa aintzat hartuta, erretzen duten emakumeak %24 dira eta gizonen kasuan %23. Hortaz, esan daiteke nahiko emaitza berdintsuak dituztela. Erretzeko ohitura daukatenak erretzen hasi ziren adina aztergai edukiz, 12-18 tarte gehien errepikatzen dena da, izan ere, %84 adin tarte horretan erretzen hasi ziren (9.Eranskina).

1.Taula. Erretzeko ohitura Enkarterriko biztanleriaren artean

Erretzeko ohitura	Ez		Bai		Batzuetan		Bizitzan behin	
	n	%	n	%	n	%	n	%
Guztiak	242	%51	115	%24	54	%11	68	%14
Emakumeak	142	%48	71	%24	37	%13	45	%15
Gizonak	100	%55	43	%23	16	%9	23	%13

2. taula aztertuz gero, orokorrean gizonetakoek alkohol kontsumo altuena daukate. “Alkohola edan ohi duzu?” galderari emakumeen %77k baietz erantzun diote, gizonen %90ek baietz erantzun dioten bitartean.

2.Taula. Enkarterriko biztanleriaren alkohol kontsumoa generoaren arabera

	Alkohola edan ohi duzu?		Azken 12 hilabetetan alkohola edan duzu?		Azken 30 egunetan alkohola edan duzu?	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Guztiak	%82	%18	%95	%5	%81	%19
Emakumeak	%77	%23	%93	%7	%76	%24
Gizonak	%90	%10	%97	%3	%87	%13

Astean zehar alkohol kontsumoaren frekuentzia aztertzerakoan (3. taula), egunero edari etilikoak hartzen dituzten parte hartzaileak %2 dira. Substantzia asteburuetan bakarrik kontsumitzen dutenak %41 dira, emakumeen %42 eta gizonen %40. Tabakoaren kasuan gertatu bezala, alkohola edaten hasteko adin tarte ohikoena 12-18 tarte da (%96).

3.Taula. Astean zehar alkohol kontsumoaren frekuentzia generoaren arabera

	Guztiak		Emakumeak		Gizonak	
	n	%	n	%	n	%
Egunero	11	%2	3	%1	8	%5
Bi egunetan	39	%8	17	%6	22	%12
Hiru egunetan	31	%7	11	%4	20	%11
Lau egunetan	20	%4	9	%3	11	%6
Astebururo bakarrik	197	%41	123	%42	73	%40
Ez dut astero alkohola edaten	178	%37	130	%44	48	%26

Emaitzen azterketarekin jarraituz, gizonen kalamu kontsumoa emakumeena baino altuagoa da. Partaide guztiak kontuan hartuta, %4 egunero marihuana kontsumitzen dutenak dira, hau da, 479 partedunetatik 19; 4 emakume eta 15 gizon (4. taula). Marihuana lehenengo kontsumoaz galdetzean lortutako emaitzetan oinarrituz, erantzunen %84 13-20 tartean pilatzen dira.

4.Taula. Marihuana kontsumo frekuentzia Enkarterriko gizonen eta emakumeen artean

	Guztiak		Emakumeak		Gizonak	
	n	%	n	%	n	%
Egunero	19	%4	4	%1	15	%8
Astero	11	%2	3	%1	8	%5
Azken 30 egunetan	12	%2	7	%2	5	%3
Azken 12 hilabetetan	17	%4	9	%3	8	%5
Noizean behin	84	%18	46	%16	37	%20
Bizitzan behin	174	%36	105	%36	68	%37
Inoiz	162	%34	121	%41	41	%22

Analisiarekin jarraitzeko, parte hartzaile totalaren %22k alkohola, tabakoa eta marihuana ez den beste substantzia psikoaktiboren bat kontsumitu dutela aitortu dute (5.taula). %22 horren barnean inkesta bete duten 295 emakumetatik %11 eta 182 gizonetatik %40 aurkitzen dira.

5.Taula. Alkohola, tabakoa eta marihuanaz gain, beste substantzia psikoaktiboen kontsumoa Enkarterriko gizon eta emakumeen artean

	Bai		Ez	
	n	%	n	%
Guztiak	106	%22	373	%78
Emakumeak	33	%11	262	%89
Gizonak	73	%40	109	%60
Beste batzuk	0	%0	2	%100

Kokaina, anfetaminak edo speed, MDMA edo estasi, LSD, heroina eta disolbatzaile lurrunkorren inguruko emaitzak, 6. taulan laburbildu dira. Azken hamabi hilabeteetan kontsumo gehien izandako substantziak kokaina (%5), anfetaminak edo speed (%4) eta MDMA edo estasi (%4) dira. Era berean,

agertzen ez den beste substantzia kontsumitu izanari buruz galdetzerakoan, perretxiko aluzinogenoa gehien errepikatu den droga izan da.

6.Taula. Substantzia psikoaktibo batzuen kontsumoa Enkarterriko biztanlerian

	Bizitzan behin gutxienez		Azken 12 hilabetetan		Azken 30 egunetan		Astero edo ia astero	
	n	%	n	%	n	%	n	%
Kokaina	23	%5	24	%5	10	%2	6	%1
Anfetaminak edo Speed	51	%11	19	%4	3	%1	5	%1
MDMA edo Estasi	41	%9	20	%4	5	%1	2	%0,42
LSD	26	%5	3	%1	1	%0,21	2	%0,42
Heroina	4	%1	0	%0	0	%0	1	%0,21
Disolbatzaile lurrunkorak	8	%2	2	%0,42	0	%0	1	%0,21

Aurretik aipatutako substantzia psikoaktiboen kontsumo egoerei buruzko galderan aukeran emandako bost erantzunen artean gehien errepikatu dena "parrandan" (%85) izan da (7. Taula). Gainera, galdera irekiaren bidez beste kontsumo egoerak adierazteko aukera zegoen eta lortutako emaitzak hauek izan dira: bikotekidearekin, sexu praktikan, lanean eta erritu-xamanikoetan.

7.Taula. Kokaina, Anfetaminak edo Speed, MDMA edo Estasi, LSD, Heroina edota Disolbatzaile lurrunkorren kontsumo egoera Enkarterriko biztanlerian

	n	%
Parrandan	78	%85
Lagunen artean	39	%42
Etxean bakarrik	10	%11
Diskoteketan	35	%38
Jaialdietan	36	%39
Asteburuetan	27	%29

Substantzia psikoaktibo guztien kontsumo arrazoiei bideratutako galdera bakarrik 155 pertsonak erantzun dute. Aukera anitzeko galdera izanda, %69k gustatzen zaielako kontsumitzen dutela esan dute eta %54k ondo pasatzeko egiten dutela (8.Taula). Beste arrazoi batzuk adierazteko galdera irekian bildutako emaitzak askotarikoak izan dira, baina gehien errepikatu direnak hauek izan dira: alkohol kontsumoa kulturala delako, pentsatzeari uzteko eta aisialdia dela eta.

8.Taula. Enkarterriko biztanleriak substantzia psikoaktiboak kontsumitzearen arrazoiak

	n	%
Gustatzen zaidalako	107	%69
Ondo pasatzeko	84	%54
Nire lagunek egiten dutelako	3	%2
Ligatzeko	5	%3
Lagunak egiteko	1	%1
Ez dakit	16	%10

Analisiarekin amaitzeko, %87k baietz uste dute edozein momentutan haren kontsumoa eten dezaketela. Bestalde, %39k soilik drogak hartzeak ondorioak izan ditzakela adierazi dute (9. taula).

9.Taula. Enkarterriko biztanleriak bere droga kontsumoaren aurrean dauzkan jarrerak

	Bai		Ez	
	n	%	n	%
Edozein momentutan kontsumoa eten	164	%87	24	%13
Droga kontsumo problematikoa	10	%5	198	%95
Zure kontsumoak ondorioak izan ditzake	78	%39	122	%61
Drogei buruzko informazio nahikoa	197	%63	114	%37

5. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

5.1. EZTABAIDA

Puntu honi hasiera emateko, generoari begira, emakumeen eta gizonen parte hartzean eman den ezberdintasuna aztertuko da. Izan ere, ikerketan emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa izan da. Hori gertatzearen arrazoi bat, marko teorikoan Enkarterriko ezaugarri demografikoetan agertzen den moduan, eskualde honetan emakumeak nagusi direlako izan daiteke (EUSTAT, 2018). Bestalde, inkesta sare sozialetatik zabaldu da eta, gizonekin alderatuz, emakumeek parte hartze aktiboagoa izan ohi dute (INE, 2016). Gainera, Mosteiro Garcíaren (1997) eta Guerraren (2015) lanetan oinarrituz, emakumeek gizarte zientzietako graduak edo ikasketak burutzeko joera handiagoa dute, beraz, ondorioztatu daiteke, izaera sozialeko gaiei dagokienez interes handiagoa erakusten dutela.

Tabakoaren kontsumoari erreparaturaz, %24k erretzeko ohitura dauka. Emaiza bat dator Eusko Jaurlaritzak 2017. urtean burututako ikerketarekin, non %22,1ek aitortzen zuten erretzen zutela. Gauzak horrela, Osakidetzak (2018) "Euskadi libre de humos de tabaco" txostenean argi utzi du 2005. eta 2010. urteetan kaleratutako tabakoaren kontrako legeen ondorioz, Euskal Herrian eta Espainian biztanle bakoitzeko tabako paketeen salmenta nabarmen jaitsi egin dela. Izan ere, 2005. urtean biztanle bakoitzeko Euskadin 120,3 pakete tabako saldu ziren, 2011. urtean 72,3 eta 2014. urtean 57,8. Horrez gain, Drogomendiaren (2020) aburuz, erretzaileen kopuruak ere behera egin du, 2004an biztanleria orokorrarekiko %30,32k erretzen zuten eta 2014an %22,08k.

Ildo beretik, ikerketaren emaitzek islatzen dute Enkarterrin, batez ere, 12-18 urte bitartean hasten dela tabakoaren kontsumoa. Andaluzian bildutako datuak nahiko antzekoak dira, lehenengo tabako kontsumoari dagokionez, 11-20 urte tartea baita nagusi (Junta de Andalucía, 2017). Caldenteyk (2018) dio Espainian, Europar Batasunarekin alderatuz, gazteak lehenago hasten direla erretzen, 14 eta 18 urteen bitarteko nesken %33 eta mutilen %29 erretzaile baitira. National Institute on Drug Abusen (2010) arabera, 2007ko erretzaile berrien %60 18

urtetik beherakoak zirela. Beraz, datu horiek guztiak ikerketa honen bidez lortutako datuekin bat datozeela ondoriozta daiteke.

Alkoholarekin berdina gertatzen da, Díez Hernándezek (2002) adierazi du Europako herrialdeetan droga honen kontsumoa gero eta lehenago hasten dela, alkohola, lagunekin denbora igarotzeko eta taldean giza harremanak eratzeko bide gisa ulertzen baita. Bestalde, autore berak dioenez, gazteriak alkohol kontsumo handiagoa izan ohi du, helduagoak direnek astean zehar modu orekatsuan kontsumitzen duten bitartean, gazteagoek festarekin eta asteburuekin lortutako kontsumoa izaten dute. Ez hori bakarrik, Barreiro, Boubeta, Folgar, Golpe eta Gómezek (2020) diotenez, alkohola goizago kontsumitzen hasten diren gazteek garunean eta maila neurokognitiboan eraginak pairatzeko arrisku handiagoa daukate. Hala ere, Barreiro, Boubeta, Folgar, Golpe eta Gómezek (2020) burututako ikerketan lortutako emaitzen aburuz, alkoholaren kontsumo hasiera 13,4 batez besteko adinean kokatzen da, baina, ikerketan honetan 15,6 adinean kokatzen da, guretzat positiboa dena.

Ikerketan, partaideen %90k alkohola edan ohi duela aitortu du eta, emaitzak Eusko Jaurlaritzak (2017) lortutakoekin alderatuz, nahiko antzekoak dira. Díez Hernándezek (2002) ziurtasun osoz alkohola gure kulturen txertatutako eta instituzionalizatutako droga dela azaltzen du. Hori dela eta, alkohola edatea normaltzat jotzen da eta, kontrarioki, alkohola kontsumitzeari uko egitean, bazterketa gertatzen da. Horrela, gizartean, alkohola edatea betebeharrak bihurtzen da. Alabaina, gizarteratzeko bide bezala ulertzen bada ere, bakarkako kontsumoa gizartean gaixotasun edota arazotzat ikus daiteke (Díez Hernández, 2002).

Tabakoarekin izan ezik, emakumeek gizonen baino droga kontsumo baxuagoa izan ohi dute. Lortutako datuek marko teorikoan azaldutako bi inkestekin bat egiten dute (Eusko Jaurlaritza, 2017, eta Andaluziako Junta, 2018), horietan ere emakumeen kontsumoa gizonena baino baxuagoa baita. Ez dago dudarik, gizonen dituzten bizi ohiturak osasunarentzat kaltegarriagoak direla. Gainera, Pardoren (2012) esanetan, tradizioak markatzen dituen arduetan erreparatuz gero, ongizatearen eta osasunaren erantzukizuna emakumeen gain dagoela ikus

daiteke. Ondorioz, gizonen drogak hartzea naturalagozat hartzen da eta kulturalki zein sozialki onartuago dago. Gauzak horrela, drogak kontsumitzen dituzten emakumeek, gizarte balio menderatzaileen kontra joateagatik, gizarte bazterketa handiagoa pairatzen dute (Pardo, 2012). Haatik, inkestan bildutako datuetan oinarrituz, emakumeek tabako kontsumo altuago izatea ez da arruntena, ikerketek kontrakoa esaten baitute.

Marihuana kontsumoa izan ezik, analizatu diren legez kanpoko drogen kontsumoa jai ingurugiroetara mugatzen da, hau da, parrandetara, diskoteketara edota jaialdietara. Calzadaren (d.g.) aburuz, substantzia horien presentzia testuinguru horietan gizarteratzea errazteko, energia gehiago izateko, arazoak edo erantzukizunak alde batera uzteko, ondo pasatzeko edota festan luze irauteko kontsumitzen da. Gainera, Quintana eta Ortuzarrek (2016) azaldu dute gaueko aisialdian gehien bat taldeari eta taldeko kohesioari ematen zaiola garrantzia, hori dela eta, talde presioa nabariagoa izaten da eta droga kontsumoa aruntagoa. Orobat, testuinguru honetan helburu nagusiak eta drogak hartzea eragiten duten faktoreak egunerokotasunarekin apurtzea, parekoekin elkartzea, betebeharretatik ihes egitea eta kanpo-kontrola ez izatea dira .

Drogei buruzko ezagutzaz galdetzerakoan, %37k informazio nahikoa ez daukatela adierazi dute. Ezagutza falta hori Enkarterrin droga-mendekotasunei bideratutako esku-hartze sozio-hezitzailea ez izatearen ondorioetako bat da. Bernal, Díaz, Jiménez eta Ruizen (2005) esanetan, ikasketa soziala eta metodologia aktiboa bultzatzen dituzten adikzio esku-hartzeak prebentzioan eta droga kontsumoen jarrerak murrizteko eraginkorragoak dira. Halaber, autore horien aburuz, programa psikosozialek kontsumoan eragin dezaketen faktoreen artean aurkitzen den talde presioarekiko erresistentzia hobetzen dute. Berdinki, gaitasun sozialak lantzen dituzten proiektuek drogen erabileran erabaki pertsonalak hartzea sustatzen dute (Bernal, Díaz, Jiménez eta Ruiz, 2005).

5.2. ONDORIOAK

Hipotesien balioztapenekin hasteko, hipotesiak deituriko azpigituluan jarraitutako ordena jarraituko da:

- a) Sexuari begira, baieztatu daiteke emakumeek, gizonekin alderatuz, droga kontsumo baxuagoa daukatela. Tabakoaren kasuan izan ezik, substantzia psikoaktiboen kontsumoaren analisia egin eta gero, gizonen kontsumoa handiagoa dela probatu da.
- b) Era berean, edozein momentutan kontsumoa eteteko gai izateari buruz galdetzerakoan, %87 gai direlakoan daude, beraz, kontsumitzaileek substantzien menpe ez daudela pentsatzen dutela agerian gelditu da.
- c) Enkarterriko eskualdean droga legalen presentzia droga ilegalen presentzia baino hedatuago dagoela ondoriozta daiteke. Izan ere, erretzeko ohitura daukatenen edota batzuetan erretzen dutenen eta alkohola edan ohi dutenen ehunekoak, aztertu diren droga ilegalen ehunekoekin alderatzerakoan, nabarmen handiagoak dira.
- d) Kontsumo egoerarekin jarraitzeko, partaideen %42k kokaina, anfetamina edo speed, MDMA edo estasi, LSD, heroina eta disolbatzaile lurrunkorrak lagunen artean kontsumitzen dituztela aitortu dute. Gainera, festa ingurugiroak nahiko sozialak direla aintzat hartuta, parrandan, diskoteketan eta jaialdietan substantzia horiek kontsumitzen dutenen ehunekoak ere altuak dira. Alkoholari begira, astebururo bakarrik egiten den kontsumoa nabarmentzen dena da, asteburua kontaktu soziala areagotzen den asteko tartea izanda. Orduan, substantzia horien kontsumo soziala nagusi dela baieztatu daiteke.
- e) Hipotesietan esan bezala, heroinaren eta disolbatzaile lurrunkorren kontsumoa zeharo baxua izanda ere, lagin osoarekiko bizitzan behin heroina kontsumitu dutenen ehunekoa %1 izanda eta, disolbatzaile lurrunkorren kasuan, %2 izanda, bi substantzia horiek astero kontsumitzen duen jendea ere badago.
- f) Adina aintzat hartuta, inkestan lortutako erantzunak bi multzotan bereizi dira, 18-28 eta 29-63 urte multzoak. Ondoren, tabakoa erretzen hasitako adinaren batez bestekoak ateraz gero, antzeman daiteke 18-28 urte bitartekoak 15 urterekin hasi zirela erretzen eta beste multzoa 16 urterekin. Alkoholari dagokionez, lehenengo tartearen barruan dauden partaideak 15 urterekin alkohola edaten hasi ziren eta bigarren tartea 16 urterekin. Marihuana lehenengo kontsumoaz galdetzerakoan, 18-28 tartekoak 16 urterekin hasi ziren eta 29-63 bitartekoak 19rekin. Hortaz,

lortutako datuen arabera, droga kontsumoa gero eta lehenago hasten dela dioen hipotesia baieztatzen da.

- g) Askok ondo pasatzearen sinonimotzat hartzen dute drogen kontsumoa dioen hipotesia onartu daiteke, partaideen erdiak baino gehiagok substantzia psikoaktiboak ondo pasatzeko eta ondorioetan pentsatu gabe hartzen baitituzte.
- h) Drogen inguruan zenbaitek daukaten ezjakintasuna eta kontsumoaren eta aisialdiaren artean egiten den lotura aintzat hartuta, esku-hartze sozio-hezitzailea beharrezkoa da, batez ere, aisialdira bideratutakoa.

6. ETIKA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

Ikerketa honetan bildutako emaitzak Google Forms-en bidez eskuratu direnez, guztiz anonimoak dira. Horregatik, EHUko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeari (GIEB) jarraituz, ez da datu pertsonalik eskatu eta galdetegiaren lehenengo orrialdean partehartzaileen izengabetasuna bermatu da.

Para la recogida de datos, se siguieron todos los cánones establecidos por la Ley Orgánica 15/99 de Protección de Datos de Carácter Personal y en los cuestionarios se informó del carácter voluntario de su participación y de su necesario compromiso para dar comienzo a la prueba.

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguilar, J. L. R., Cacharrón, Y. B., Castillo, O. G., Garrido, I. V., Parreño, J. C. eta Saldaña, A. G. (2011). Estudio cualitativo sobre el consumo de tóxicos en adolescentes. *Atención primaria*, 43(8), 435-439.
- Ailaket (2019). *Droga erabiltzaileak arrisku murrizketaren alde*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: <http://www.ailaket.com>
- Artiaga, J.F. (1991). *Nosotros, los adolescentes y las drogas*. Madrid: Ministerio de Sanidad y Consumo.
- ASEDES eta CGCEES (2007). *Documentos profesionalizadores*. Bartzelona, Espainia: Autorea.

- Barreiro, C., Boubeta, A. R., Folgar, M. I., Golpe, S. eta Gómez, P. (2020). La edad de inicio en el consumo de alcohol en adolescentes: implicaciones y variables asociadas. *Adicciones*, 32 (1), 52-62. 2020ko urtarrilaren 27an hartuta, hemendik: <http://www.com.com.adicciones.es/index.php/adicciones/article/view/1266>
- Caldentey, D. (2018). España es el país de la UE donde los jóvenes (sobre todo ellas) se enganchan antes al tabaco. *UNIR revista*. 2019ko urtarrilaren 12an hartuta, hemendik: <https://www.unir.net/salud/revista/noticias/dia-mundial-tabaco-espana-adiccion-pais-de-la-ue-donde-los-jovenes-sobre-todo-ellas-se-enganchan/549203619584/>
- Calzada. R (d.g.). *Ambientes de uso de drogas entre los jóvenes*. <http://www.espolea.org/uploads/8/7/2/7/8727772/ddt-ambientesdeuso.pdf>
- Borrego, M.A.R., Cuenca, A.I.C., Lopezosa, P.H., Muñoz, P.M.R. eta Torres, J.M.C. (2019). Evolución del consumo de alcohol y tabaco en jóvenes en España, posterior a la ley 42/2010 frente al tabaquismo: 2011-2014. *Adicciones*, 31 (4), 274-283. 2019ko abenduaren 30ean hartuta, hemendik: <http://www.adicciones.es/index.php/adicciones/issue/view/97>
- Barca, G. C., Calatayud, S. G., Figuro, C. R., Repetto, H. P. eta Serrano, R. S. (2001). Consumo de tabaco, alcohol y drogas no legales entre adolescentes y relación con los hábitos de vida y el entorno. *Anales Españoles de Pediatría*, 55 (2), 121-128.
- Bernal, A.O., Díaz, F.J.R., Jiménez, M.D.L.V.M. eta Ruiz, C.S. (2005). Prevención e intervención psicosocial sobre el consumo juvenil de sustancias psicoactivas: comparación de la eficacia preventiva de cuatro programas. *Intervención psicosocial*, 14 (2), 189-208.
- CMAPA (2009). *Guía de información sobre drogas*. Zaragoza: Ayuntamiento de Zaragoza. 2019ko abenduaren 30ean hartuta, hemendik: http://www.zaragoza.es/contenidos/sectores/adicciones/guia_drogas_2013.pdf
- Díaz, B.C., Fernández, L.C. eta Prieto, A.T. (2008). *Cocaína. Guías Clínicas Socidrogalcohol basadas en la evidencia científica*. 2019ko abenduaren 29an hartuta, hemendik: <https://socioalcohol.org/proyecto/cocaina-guias-clinicas-socioalcohol-basadas-en-la-evidencia-cientifica/>

- Drogomedia (2020). *Kontsumoaren adierazleak*. 2020ko urtarrilaren 27an hartuta, hemendik: <https://www.drogomedia.com/eu/banco-de-datos/adierazle-soziologiko-eta-kontsumoaren-adierazleak-kontsumoaren-adierazleak/1/>
- Enkarterriko Mankomunitatea (2016). *Plan local de adicciones 2016-2020*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: <https://www.enkarterri.eus/es-ES/Documents/PLAN%20LOCAL%20ENKARTERRI-%20abril%202017.pdf>
- Enkarterriko Mankomunitatearen (d.g.). *Mankomunitatea*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: <http://www.enkarterri.eus/es-ES/Paginas/default.aspx>
- Enkartur (2020). *Enkarterri, a un paso de Bilbao: La comarca más occidental de Bizkaia*. 2019ko urriaren 8an hartuta, hemendik: <https://www.visitenkarterri.com/enkarterri/encartaciones/las-encartaciones.html>
- Espainiako Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011). *Drogas Emergentes, Informes de la comisión clínica*. Madrid: Advantia Comunicación Gráfica, S.A.
- Eusko Jaurlaritza (2017). *Encuesta sobre adicciones en Euskadi 2017: monográfico sobre el consumo de bebidas alcohólicas*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_euskadi_drogas/es_def/adjuntos/Encuesta-sobre-Adicciones-2017-Alcohol.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2017). *Encuesta sobre adicciones en Euskadi 2017: monográfico sobre el consumo de tabaco*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_euskadi_drogas/es_def/adjuntos/Encuesta-sobre-Adicciones-2017-Tabaco.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2017). *Encuesta sobre adicciones en Euskadi 2017: monográfico sobre el consumo de cannabis*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_euskadi_drogas/es_def/adjuntos/Monografico-Cannabis-2017.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2017). *Encuesta sobre adicciones en Euskadi 2017: avance de datos*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_euskadi_drogas/es_def/adjuntos/Euskadi-y-Drogas-2017.pdf

- EUSTAT (2018). 1.3. *Población por la comarca de residencia, según el sexo y el lugar de procedencia. C.A. de Euskadi. 2016.* 2019ko urriaren 8an hartuta, hemendik:http://www.eustat.eus/elementos/ele0015700/13_Poblacion_por_la_comarca_de_residencia_según_el sexo_y_el_lugar_de_procedencia_CA_de_Euskadi/tbl0015781_c.html
- EUSTAT (d.g.). *Población de la C.A. de Euskadi por ámbitos territoriales, grandes grupos de edad cumplida, sexo y periodo.* 2019ko urriaren 8an hartuta, hemendik: http://www.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish/-/PX_2212_ep06b.px#axzz61ITRAbNd
- FAD (2020). *Solventes Volátiles (Inhalantes).* 2020ko urtarrilaren 15ean hartuta, hemendik: <https://www.fad.es/sustancias-y-otras-conductas/sustancias/depresoras/sustancias-volátiles/>
- Gómez, Y.F., Moreno, S.D. eta Rodríguez, M.A.F. (2019). La influencia de los roles de género en el consumo de alcohol: estudio cualitativo en adolescentes y jóvenes en Asturias. *Adicciones*, 31 (4), 260-273. 2019ko abenduaren 30ean hartuta, hemendik: <http://www.adicciones.es/index.php/adicciones/issue/view/97>
- INE (2016). 3.3. *Hábitos en Internet.* 2019ko urtarrilaren 11n hartuta, hemendik: <https://www.ine.es/prodyser/myhue17/bloc-3c.html>
- Junta de Andalucía (2017). *La población andaluza ante las drogas XIV.* 2019ko urriaren 31n hartuta, hemendik: <https://www.juntadeandalucia.es/export/drupaljda/publicacion/19/02/Estudio%20la%20población%20andaluza%20XIV.pdf>
- Lanbide (2018). *Desempleo registrado en enero de 2018.* 2019ko urriaren 8an hartuta, hemendik: http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/estadistica/informe_paro_2018/es_def/adjuntos/01-Enero/Informe_Paro.pdf
- Maturana, A. (2011). Consumo de alcohol y drogas en adolescentes. *Revista Médica Clínica Las Condes*, 22 (1), 98-109.
- Muñoz, M.M. (2007). Prólogo. J.A.R. Atance (Ed.), *Aspectos Psiquiátricos del consumo de cannabis* (5-6.orr.). Madrid: Sociedad Española de investigación en cannabinoides.
- Moreno, J. (2002). Información básica sobre drogas. A. Acero, G. Moreno, J. Moreno eta L. Sánchez (Ed.), *La prevención de las drogodependencias en*

- el tiempo de ocio* (23-75.orr.). 2019ko abenduaren 29an hartuta, hemendik: <https://socioalcohol.org/proyecto/la-prevencion-de-las-drogodependencias-en-el-tiempo-de-ocio-manual-de-formacion/>
- Mosteiro García, M.J. (1997). *El género como factor condicionante de elección de carrera: hacia una orientación para la igualdad de oportunidades entre sexos*. 2019ko urtarrilaren 11n hartuta, hemendik: https://ruc.udc.es/dspace/bitstream/handle/2183/6622/RGP_1-28.pdf
- National Institute on Drug Abuse (2010). *El tabaquismo y los adolescentes*. 2019ko urtarrilaren 12an hartuta, hemendik: <https://www.drugabuse.gov/es/publicaciones/serie-de-reportes/adiccion-al-tabaco/el-tabaquismo-y-los-adolescentes>
- OMS (1994). *Glosario de términos de alcohol y drogas*. Madrid: Ministerio de Sanidad y Consumo.
- Osakidetza (2018). *Euskadi libre de humos de tabaco*. 2019ko urtarrilaren 12an hartuta, hemendik: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vive_sin_tabaco/es_def_adjuntos/Euskadi-libre-humo-tabaco.pdf
- Pérez Garmendia, M. (2019). *Mensaje del presidente de la mancomunidad*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik: <http://www.enkarterri.eus/es-ES/Mancomunidad/Paginas/default.aspx>
- Quintana, I. L. eta Ortuzar, A. M. (2016). *El ocio nocturno de la juventud española*. 2020ko urtarrilaren 27an hartuta, hemendik: <https://www.google.com/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=9&ved=2ahUKEwjQmZnYvKTnAhVFTBoKHaRVBlgQFjAlegQICRAB&url=https%3A%2F%2Fdialnet.unirioja.es%2Fdescarga%2Farticulo%2F6149003.pdf&usg=AOvVaw0TAYwCMu1svevOgxBmkFJT>
- Pardo, L.S. (2012). *Género y drogas*. 2020ko urtarrilaren 15ean hartuta, hemendik: http://www.pnsd.mscbs.gob.es/profesionales/publicaciones/catalogo/bibliotecaDigital/publicaciones/pdf/GuiaGenero_Drogas.pdf
- Guerra, M.A.S. (2015). *Género, poder y convivencia la escuela como mezcladora social*. J.J. Leiva Olivencia, V.M. Martín Solbes, J.E. Sierra Nieto eta E.S. Vila Merino (Ed.), *Género, educación y convivencia* (27-58). 2019ko urtarrilaren 11n hartuta, hemendik:

https://books.google.es/books?id=5OW7CwAAQBAJ&pg=PA43&lpg=PA43&dq=mujeres+en+carreras+como+psicologia,+magisterio,+educacion+soci al&source=bl&ots=Np3hFSIK4Z&sig=ACfU3U2gEDkSsn08a_57rSkJ8vVfsOxWBA&hl=es&sa=X&ved=2ahUKEwiL66zB-PjmAhXw0eAKHUqEBuYQ6AEwBnoECAkQAQ#v=onepage&q=mujeres%20en%20carreras%20como%20psicologia%2C%20magisterio%2C%20educacion%20social&f=false

UNODOC (2018). *Informe mundial sobre las drogas 2018: resumen, conclusiones y consecuencias en materia de políticas*. 2019ko urriaren 14an hartuta, hemendik:

https://www.unodc.org/wdr2018/prelaunch/WDR18_ExSum_Spanish.pdf

Verdú, R. M., (2007). Drogas, adolescentes y medios de comunicación. *Comunicación e xuventude: Actas do Foro Internacional* (pp. 51-70). 2019ko urriaren 8an hartuta, hemendik:

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2648886>